Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Kodea eskaneatu Gardentasunari
buruzko Memoria deskargatzeko

# GARDENTASUNA
# BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN URTEKO MEMORIA 2015-2016

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

01 SARRERA 03 / 05

02 JARDUERA EREMUAK 07 / 09

02.1 EREMU INSTITUZIONALA ETA JURIDIKOA 10 / 13

02.2 KUDEAKETAREN 14

02.2.1 ANTOLAKETA 14 / 17

02.2.2 PROZEDURAK 18 / 22

02.2.3 INFORMAZIO--SISTEMAK 23

02.3 KULTUR EREMUA 24 / 25

03 DATU ESANGURATSUAK 27 / 31

04 ONDORIOAK 33 / 34

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# GARDENTASUNA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN URTEKO MEMORIA 2015-2016

01

# Sarrera

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua onestea oso-oso garrantzitsua izan da Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru--sektore publikoko erakundeen gardentasun-politika bultzatzeko.

Inflexio puntu bat izan da Bizkaiko Foru Aldundia 2005. urtean «Bizkaia 21: Bizkaiko Foru Aldundiaren estrategia garapen iraunkorrerako» programaren bitartez hasitako bidean; programa horretan gardentasuna jarduteko ardatzetako bat izatearen alde egiten zen, eta 2011-2016 aldian jarraipena eman zitzaion Bizkaia 21 II. programarekin. Programa bietan, printzipio nagusia da «Gobernantza Ona eta Parte--hartzea» eta herri administrazioen kudeaketan gardentasuna indartzearen alde eta administrazio horietan informaziorako bide publikoak sortzearen alde egiten da, argi eta garbi.

Araua onartzea, beraz, aurrerapauso bat da, eta iaz aurrerapen hori sendotu egin zen; izan ere, batetik, Foru Aldundian gardentasunaren kudeaketaz arduratzen den antolakuntza-unitate bat sortu zen, eta, bestetik, erakunde gisa arlo horretan hartu ditugun konpromisoak betetzen direla zaintzen duten tresna eta organo independenteak egituratu dira. Ildo horretan, memoria honen xedea da Bizkaiko Foru Aldundiak 2015eko uztailetik 2016ko abendura arte gardentasunaren arloan garatu duen lanaren berri ematea, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 26.3.e) artikuluan ezarritakoarekin bat. Artikulu horren arabera, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari dagokio «urteko memoria orokor eta bakar bat egitea Foru Aldundiarentzat eta foru--sektore publikoko erakundeentzat. Memoria horretan Foru Aldundiko sailetan eta foru--sektore publikoko erakundeetan gardentasun--politiken egoeraren gaineko barne ebaluazioa jaso behar da».

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# GARDENTASUNA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN URTEKO MEMORIA 2015-2016

02

# Jarduera eremuak

Iaz garatutako jarduera hiru jardun--eremu ezberdinetan oinarrituta zegoen: eremu instituzional eta juridikoa, kudeaketa eta kultura. Horri dagokionez, proiektuak eta ekimenak zehaztu ziren aipatutako eremu horiek gauzatzeko, eta eremuak elkarren artean osagarriak izatea lortu nahi zen; azken finean, gardentasunaren kudeaketa integrala eta jasangarriaren alde egin zen.

EREMU INSTITUZIONAL ETA JURIDIKOA

marko programatiko eta juridiko bat ezartzea funtsezkoa da gardentasunaren politikaren oinarriak finkatzeko. Eremu honen barruan daude gardentasunaren arloko konpromisoen definizioa, eskubide eta betebeharrak definitzeko beharrezko arauen garapena, eta eskubide eta betebehar horiek betetzen direla bermatzen duten tresnak eta organoak.

KUDEAKETA EREMUA:

antolakuntza, prozedura eta sistema arloko jarduerak daude eremu honetan, ereduaren kalitatea eta iraunkortasuna bermatzen dutenak, bai publikotasun aktiboari dagokionez, bai informazio publikoa eskuratzeko eskubideari dagokionez.

ÁMBITO CULTURAL

Bizkaian gardentasunaren politika sartu eta lantzen laguntzen duten jarduerak, barne mailan (kargu publikoak eta langile publikoak) zein erakundetik kanpo (herritarrak, elkarte- sarea eta enpresa-sarea, besteak beste). Nola? Sentsibilizazio eta prestakuntzaren bitartez, eta gardentasunaren arloko ezagutza-eta komunikazio-sareetako presentzia aktiboaren bitartez. Jarraian, eremu bakoitzean sustatu eta garatutako jarduera nagusiak zehazten dira:

# 2.1
# EREMU INSTITUZIONALA ETA JURIDIKOA

**2015EKO UZTAILA**

Gernika, 2015eko uztailaren 1a. Unai Rementeriak Bizkaiko Ahaldun Nagusi gisa eman zuen lehenengo hitzaldian, Gardentasunaren garrantzia nabarmendu zuen legegintzaldiaren funtsezko konpromisoen artean. Rementeriaren esanetan, gobernu taldearen lehenengo neurrietako bat gardentasun eta parte hartze handiagoa lortzeko ekimenen sustapena izan behar da.

**2015EKO URRIA**

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru Arauaren proiektua onartzen du.

**2015EKO ABENDUA**

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren Ataria Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoari egokitzeko lanak amaitzen dira. Gardentasunaren Ataria publikotasun aktiboari buruzko informazioa eskuratzea errazten duen bidea da, eta, atari horren bitartez, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatu ahal da.

Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeetan gardentasunaren atariak sortzen dira; erakundeen web orrietatik edo Aldundiaren Gardentasunaren Ataritik sartu ahal da atari horietara.

Bizkaiko Foru Aldundiak lehenengo postua lortzen du Diputazioen Gardentasun Indizean (INDIP), 100 puntutik 100 lortu dituelako.

**2016KO OTSAILA**

Bizkaiko Batzar Nagusiek, otsailaren17ko osoko bilkuran, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua onartzen dute.

**2016KO APIRILA**

1/2016 Foru Araua erraz irakurtzeko bertsioa argitaratzen da. Bertsio hori arauaren egokitzapen bat da, eta termino batzuei buruzko azalpenak eta definizioak ematen ditu, herritarrek araua ondo uler dezaten.

Bizkaiko Foru Aldundiak bere Gardentasunaren Atari berria abiarazten du: Bizkaia Gardena. Atari berri horren bitartez, Foru Aldundia eta haren funtzionamendua eta gobernuaren jarduera erakusten dira, eta informazioaren edukia modu egituratuan eta osatuan eskaintzen dira, erraz eskuratzeko moduko formatu berrerabilgarrietan.

**2016KO MAIATZA**

Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 3ko erabaki baten bidez, Gardentasunaren Atariaren xehetasun eta edukiak arautzen dira, bereziki, informazioaren edukiak, hizkuntzak, nabigazioa, egoitza elektronikoa eta publikotasun aktiborako sarbidea. Bizkaiko Foru Aldundiak 2016ko maiatzaren 31n hartutako erabaki baten bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren informazio publikoa eskuratzeko eskabideak izapidetzeko prozedura arautzen duen gida onetsi zen.

**2016KO UZTAILA**

Uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza-eta jarduera-araudia onartu zen.

**2016KO URRIA**

Bizkaiko Foru Aldundiak urriaren 18an hartu zuen erabaki baten bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen osaera onartzen da. Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea izaera tekniko argia duen kide anitzeko organoa da; hiru (3) kide titular eta hiru (3) ordezko ditu, eta 1/2016 Foru Arauaren 28. artikuluan haien izendapenerako baldintzak direla-eta ezarritako aurreikuspenak betetzen ditu, inpartzialtasun-izaera eta espezializazioa babesteari lotutakoak.

**2016KO ABENDUA**

Bizkaiko Ahaldun Nagusiak Gobernu Irekiaren Munduko Gailurrean partzen hartzen du Parisen, Open Government Partnership (OGP) ekimenak Organisation for Economic Co-operation and Development (OECD) erakundearekin lankidetzan antolatuta.

# 2.2
# KUDEAKETAREN EREMUA

## 2.2.1. ANTOLAKETA

Antolakuntza mailan,Bizkaiko Foru Aldundiak kudeaketa--eremu misto bat aukeratu du, ereduaren iraunkortasunerako beharrezkoa den homogeneotasuna eta malgutasuna bateratzeko. Alde batetik, gardentasunaren inguruko estrategiaren definizioa, plangintza, koordinazioa eta aholkularitza unitate berri batean zentralizatzen da: Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusia. Osagarri moduan, argitaratu behar den informazioa sortzen duen antolakuntza--unitate bakoitzean informazioaren edukien kudeaketa deszentralizatzen da. Deszentralizazio horren adibide onena foru erakundeak dira, informazioaren publikotasuna beraiek zuzenean kudeatzen baitute.

Eredua abian jartzeko, kudeaketa deszentralizatua antolatzeko prozedura eta metodologia komunak zehaztu eta ezarri genituen iaz, bai publikotasun aktiboari dagokionez bai informazio publikoa eskuratzeko eskubideari dagokionez.

**Publikotasun aktiboaren inguruko antolakuntza--jarduerak:**

Publikotasun aktiboa gauzatzeko, herritarren eskura jartzen da Bizkaiko Foru Aldundiak, foru sail eta sektore publikoko erakundeen bitartez, egiten duen kudeaketa lanari buruzko informazio guztia. Informazio hori doakoa eta eguneratua izan eta modu argi eta errazean eman behar da; gainera, eskuratzeko erraza izan behar da. Antolakuntzari dagokionez, horrek esan nahi du beharrezkoa izango dela alderdi askoren kudeaketa. Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusia, informazioa sortzen duten antolakuntza-unitateetako arduradunekin: Funtzio Publikoa, Antolaketa, Aukeraketa eta Trebakuntza, Komunikazioa, Idazkaritza Nagusia, Zerbitzu Zentralak, Lege Aholkularitza, Aurrekontuetarako eta Ekonomia Kontrola, Kontratazioa, Ondarea, Ibilgailu-basea, Modernizazioa, Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza, Behatokia, Kontratuei buruzko Errekurtsoen Auzitegi Administratibo Forala, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala.

Halaber, aldian-aldian bilerak egin dira foru erakunde publiko guztietako antolakuntzako kudeatzaile eta arduradunekin, haietan guztietan publikotasun aktiboaren egitura berdina ezartzeko.

Gai hauetan lan egin zen antolakuntza-unitateekin:

**1/** Argitaratu behar diren edukien informazio iturrien identifikazioa.

**2/** Argitaratutako informazioa eguneratzeko prozesuak ezartzea, eta prozesu horiek automatizatzen saiatzea.

**3/** Informazio hori bilatu eta ulertzea errazten duten plantilla homogeneoak egitea.

**4/** Gardentasunaren arloan antolakuntza-unitateei eta foru erakundeei egiten zaizkien kontsultak kudeatu eta erantzuna ematea.

Bestalde, Foru Aldundiak tokiko erakundeekin (batez ere, Biscaytik foru erakundearekin), udalerrietan gardentasuna eta gobernu irekia sustatzeko egiten duen lana nabarmendu behar da. BiscayTIK Fundazioak Udala Zabaltzen jartzen du gobernu-irekiko eta gardentasuneko ekintzak ezarri nahi dituzten udal guztien esku. Txosten hau argitaratzen den egunerako, 43 udalerrik, 4 mankomunitatek eta partzuergo batek martxan izango dute plataforma hori.

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen inguruko antolakuntza-jarduerak.

Lehenago esan dugun bezala, ereduaren deszentralizazioa **informazioa eskuratzeko eskubidea**ren kudeaketari ere aplikatzen zaio. Kasu honetan, arloaren arabera eskumena duen antolakuntza-unitatea identifikatzen da eskabide bakoitzean, eta, azken finean, unitate hori kudeatu eta ebazteaz arduratuko da. Gure helburua hau da: erakunde hau osatzen dugun pertsona guztiek administrazio gisa hartu ditugun gardentasunaren arloko konpromisoak beren gain hartzea.

Antolakuntzari dagokionez, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartzen ditu funtzio hauek: eskabideak hartzea, unitate eskuduna identifikatzea, eta, hari aholkularitza eskaintzea izapidetze-fase desberdinetan. Zuzendaritzak eskabideak kudeatu eta haiei erantzuna emateko egokitzat jotzen dituen jarduerak proposatzen ditu, eta eskabide horien kudeaketaren jarraipena eta kontrola egiten du. Horretarako, antolaketa eta baliabideak egokitu behar izan dira, prozedura osoan zehar erantzuna eman ahal izateko: lehenik, erregistroa, barne tramitazioa eta interesdunari jakinaraztea; gero, zuzenketak, onartu gabekoak eta ukatutako eskabideak; azkenik, espedientea ebaztea eta erreklamazioak edo errekurtsoak, halakorik badago.

## 2.2.2. PROZEDURAK

Ereduaren iraunkortasuna bermatzeko oinarrizko zutabeetako bat barne prozeduren definizioa da. Ildo horretatik, funtsezko urratsa **Publikotasun Aktiboaren Edukien Katalogoa** egitea izan da. Katalogo horretan hauek definitzen dira:

- Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru Arauan definitutako publikotasun aktiboaren eremu desberdinetan (instituzionala, juridiko-normatiboa, ekonomiko-finantzarioa, kudeaketarena, politika sektorialena, enplegu publikoarena, eta informazio orokorrarena) argitaratuko diren eduki espezifikoak.

- Edukiak eguneratzeko maiztasuna.

- Informazioa bildu behar duten unitate espezifikoak eta erreferentziako pertsonak.

- Aplikazioak edo dokumentazio-iturriak.

- Datuak berrerabilgarriak izateko, informazioa argitaratzeko formatuak (esaterako, xls, doc, pdf, csv, xml...).

Katalogo hori abiapuntutzat hartuta, foru erakundeekin batera lan egin zen, erakunde horietan aplikatzekoa izango zen katalogo espezifiko bat egiteko. Helburu bikoitza lortu nahi zen: batetik, argitaratu behar diren edukiei eta argitaratzeko bideei buruzko orientabidea ematea erakundeei, eta, bestetik, argitalpenaren edukiei eta estiloaren estandar homogeneoak bermatzea. Plantillak eman zituzten informazioaren homogeneotasuna bermatzeko, eta foru erakundeen gardentasunari buruzko atariak berrikusteko sistematika bat ezarri zen.

Puntu honetan, publikotasun aktiboari dagokionez, nabarmendu behar da Bizkaiko Foru Aldundiak eta bere erakundeek eduki osagarriak argitaratzen dituztela etengabe, derrigorrean argitaratu behar den oinarrizko informazioaz gain (Gardentasunaren Ataria Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 19/2013 Legea). Besteak beste:

- Honako hauen ondasunen eta jardueren urteko adierazpenak: Ahaldun Nagusia, foru diputatuak, kabineteburuak, sailetako zuzendari nagusiak eta erakunde autonomo, erakunde publiko enpresarial, eta foru-sektore publikoko erakundeetako zuzendariak eta/edo kudeatzaileak.

- Behin-behineko langileen lanpostuen zerrenda, kopurua, lantokia, eginkizunak eta ordainsariak adierazita.

- Inbertsioetan egindako gastu publikoa eta biztanleko portzentajea.

- Hornitzaileei ordaintzeari buruzko legeria betetzeko epeak.

- Sailetan eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeetan erantzukizun gorena duten kargu publiko foralen agenda eguneratuan sartutako gertaera publikoak

- Kontratazio-erakundeak eta -organoak, eta kontratazio-mahaien osaera eta aktak.

- Diru-laguntzaren xedeak behar bezala bete direla ikuskatzeko burututako kontrol-jarduerak, halakorik egin bada.

- Administrazio-prozedura elektronikoak eta espedienteak izapidetzeko sistema.

- Enplegu publikoari buruzko informazioari dagokionez:
  - Plantillaren egiturari buruzko datuak eta araubide juridikoa, baita lanpostuei dagozkien eskalak, azpieskalak, motak eta kategoriak ere.
  - Lan-eskaintza publikoak, eskaintzen betetze-maila, funtzionarioak eta lan-kontratudun langileak aukeratzeko prozesuak, lanpostuak bitarteko funtzionarioekin edo aldi baterako lan-kontratudun langileekin betetzeko deialdiak barne.
  - Lanpostuak betetzeko sistemak, deialdiak eta adjudikazioak.
  - Zuzendaritzako langileentzako, funtzionarioentzako eta enplegatu publikoentzako prestakuntza-programak.
  - Ordezkaritza sindikalaren organoen osaera eta dauden pertsonen kopurua, dagokien sindikatuaren arabera sailkatuta; urtean erabilitako ordu kopurua, eta liberazio horiek Bizkaiko Foru Aldundiari edo foru-sektore publikoko erakundeei eragiten dieten kostua.
  - Lanpostuen zerrendak edo haien antzeko antolakuntza-tresnak, eginkizunak eta ordainsariak zehaztuta.
  - Giza baliabideen plan estrategikoak, giza baliabideak antolatzeko planak edo karrera profesionalerako planak.
  - Sektore publikoan beste lanpostu edo jarduera baterako bateragarritasuna baimenduta duten edo jarduera pribatuak egiteko bateragarritasuna onartuta duten enplegatu publikoen zerrenda.
  - Foru Aldundiaren lan-poltsak eta haien osaera.

- Bizkaiko herritarrentzat interes orokorrekoa izan daitekeen informazioa, besteak beste, informazio fiskala, kartografikoa, ingurumenekoa, nekazaritzakoa, lurralde-antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa, kulturakoa, gizarte zerbitzuei buruzkoa edo lurralde historikoko erakundeen edozein eskumeni dagokiona.

- Zerbitzu publikoak eskuratzeko betekizunak eta baldintzak. Informazio horretan ordutegia adieraziko da, baita, hala badagokio, eskatzen diren tasak, tarifak edo prezioak. Horretaz gain, zerbitzu publikoen prestazioa dela-eta herritarrek duten poztasuna neurtzeko inkestak, baldin eta beste atal batean argitaratzen ez badira.

- Herritarrei laguntza emateko eta herritarrek parte hartzeko zerbitzuak, zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko kexa eta erreklamazioak aurkezteko prozedura, aurkeztutako erreklamazio kopurua eta onartu direnen edo interesdunen alde ebatzi direnen kopuru edo portzentajea.

Guztira, 50 item dira, 1/2016 Foru Arauak jasotzen dituen sei informazio arloen inguruan egituratutakoak.

Informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruz, Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru Arauaren III. tituluan honako hau ezartzen da: «Foru Aldundiak ezarriko du zein diren informazio eskabideak izapidetzeko eskumena duten unitateak, arauzko xedapen arauemaile baten bidez edo erabaki baten bidez ezarri ere».

Horretarako, 2016ko maiatzean, informazio publikoa eskuratzeko eskabideak izapidetzeko prozedura arautzen duen gida onetsi zen. Gida horrek eskabideei erantzuna emateko barne prozedura arautzen du, estandar homogeneoen arabera.

- Eskabide zehaztugabeei eta haien administrazio eskudunei bidaltzeari (bideratzea) buruzko protokoloak diseinatzea.

- Eskuliburu-gidak eta kasu praktikoak idaztea informazio-eskaerak behar bezala aztertzeko, eta sail guztietan irizpide homogeneok erabiltzen direla bermatzeko, hain zuzen ere, alderdi hauei buruzkoak:

  - Eskabideak ez onartzeko arrazoien garrantzia.

  - Informazio publikoa eskuratzeko eskubideak izan ditzakeen mugak, eskatutako informazio motagatik.

  - Datuen babesari buruzko araudia betetzea. Ildo horretan, lankidetza-esparrua ezarri da Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin, eta kontuan hartu da administrazio prozedura erkidearen eta elkarreragingarritasunaren arloan aplikagarria den araudia.

## 2.2.3 INFORMAZIO-SISTEMAK

Informazio eta komunikazio sistemei eta euskarri teknologikoei dagokienez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren Ataria (www.gardentasuna.bizkaia.eus) eta foru erakundeen gardentasunaren atariak dira oinarrizko tresnak. Atari horien bitartez erraztasunak jartzen dira herritarrek informazio publikoa eskuratzeko, eta gainera, atariak tresna biziak dira, etengabe eguneratu eta elikatzen direlako.

Ataria hobetu eta foru erakundeen atariak sortzeaz gain, beste elementu batzuk garatu dira kanal aniztasuna sustatzeko:

- "Gardentasuna" gaia sartzea Bizkaiko Foru Aldundiaren kexa, kontsulta eta iradokizunen tramitazioan, bai aurrez aurre, bai online.
- Informazio publikoa eskuratzeko eskabideak aurkezteko kanal anitzeko sarbide-sistema bat ezartzea:
  - Elektronikoa, egoitza elektronikoaren bidez.
  - Aurrez aurrekoa, Herritarrenganako Laguntza Bulegoetan.
  - Postaz; posta bulegoetan.
- Espedienteen kudeatzaile digital espezifiko bat ezartzeko bultzada, informazio publikoaren eskabideak izapidetzeko.

# 2.3
# KULTUR EREMUA

Gardentasuna erakundeen balioa ez ezik, gure lurraldearen balioa ere izan behar dela uste dugu. Hori dela eta, iaz ikuspegi bikoitzean oinarrituta lan egin genuen:

**Barne mailan**, gure erakundea osatzen duten pertsona guztien **prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez.** Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiak jarduera hauek egin ditu:

- Gardentasunari buruzko Legearen inguruko prestakuntza-saioak Bizkaiko Foru Aldundiko zuzendarientzat; guztira, 31 pertsonak hartu dute parte.

- Gobernamendu ona eta etika publikoaren inguruko prestakuntza-saioak Bizkaiko Foru Aldundiko zuzendarientzat; guztira, 29 pertsonak hartu dute parte.

- Prestakuntza-saioak foru erakunde publiko guztietako arduradun eta kudeatzaileentzat; guztira, 42 pertsonak hartu dute parte.

- **Erakundetik kanpo, komunikazio- eta ezagutza-sareetako parte-hartze aktiboaren bidez; s**are horiek funtsezkoak dira gardentasunaren kultura hedatzean. Hona hemen sustatu ditugun zabalkunde-jarduera batzuk:

  - 2015eko abendua: Toki Administrazioa eta Datuen Babesari buruzko III. Jardunaldia; helburua Bizkaiko udalerrietako alkate eta idazkariak sentsibilizatzea izan da. Jardunaldi hori Biscaytik Fundazioaren bidez egin da, Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin elkarlanean, eta bertan 90 pertsona izan dira.

  - 2016ko apirila: Gardentasunari buruzko araudia ezartzeko prozesuaren aurkezpena Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuan.

  - 2016ko iraila: Parte hartzeko jardunaldi bat, Informazioa Eskuratzeko Nazioarteko Egunaren ingurukoa. Jardunaldia Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu zuen, Datuak Babesteko Agentziarekin, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuarekin eta Mondragon Unibertsitatearekin batera.

  - 2016ko abendua: Toki Administrazioentzako Datuen Babeserako IV. Jardunaldia; 80 parte hartzaile izan dira.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# GARDENTASUNA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN URTEKO MEMORIA 2015-2016

# 03

# Datu esanguratsuak

Jarraian, Bizkaia Gardena atari berria abiarazi zenetik (2016ko apirila) 2016ko abendura arteko aldiari dagozkion datu nagusien grafikoa aurkezten da.

**4.1 Bizkaia Gardena atarian izandako sarrera kopurua, publikotasun aktiboaren arloen arabera.**




Bisita-kopuru handiena eremu instituzionalean izan da; eremu horretan, erakundearen antolakuntzari eta funtzioei buruzko informazioa eta goi karguen eta aldi baterako langileen informazioa jasotzen da. Bigarrenik, gaur egun arte kontsulta gehien izan duen eremua informazio ekonomiko-finantzarioa izan da, kontratazio eta diru-laguntzei buruzko informazioarekin batera.

**4.2 Hilabeteko sarrera-kopurua, publikotasun aktiboaren arloen arabera:**




Grafikoan ikusten bezala, bisiten joera goranzkoa da, argi eta garbi. Kontsulta-kopurua homogeneoa da gai guztietan, eta ez dago aldi baterako gorakada nabarmenik.

### 4.3 Informazio publikoa eskuratzeko eskabideak

Iaz informazio publikoa eskuratzeko 25 eskabide jaso ziren.

**Zein izan dira gehien kontsultatu diren gaiak?**




**Epe barruan ebatzi dira eskabideak?**




Eskabide bakar bat ebatzi da epetik kanpo, hain zuzen ere, hiru eguneko atzerapenarekin.

**Nola ebatzi dira eskabideak?**




Eskabide bat partez baietsi zen: eskatutako informazioaren zati bat eskuratzea ukatu zitzaion, Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 21.2 artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 153. artikuluan ezarritakoarekin bat. Izan ere, 1/2016 Foru Arauaren 21.2 artikuluan ezartzen da merkataritzaren edo industriaren arloko datuen konfidentzialtasunari kalte egitea arrazoi izan daitekeela eskabidea ezesteko.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# GARDENTASUNA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN URTEKO MEMORIA 2015-2016

# 04

# Ondorioak

Administrazio publikoen gobernu-ekintza Gardentasunaren printzipioan oinarritu behar da. Gure gizartearen heldutasun maila kontuan hartuta, herritarren eskaera hori behar-beharrezkoa da. Bizkaiko Foru Aldundian uste dugu beste aurrerapauso bat eman behar dugula; izan ere, gardentasuna benetakoa eta eraginkorra izateko, gure erakundearen eguneroko prozesuetan txertatuta egon beharko da. Azken finean, beharrezkoa da printzipio hori politika publikoen definizioan, ezarpenean eta ebaluazioan sartuta egotea. 2015. eta 2016. urteak funtsezkoak izan dira gure gardentasunaren ereduaren oinarriak finkatzeko. Egia da alderdi batzuk hobetu edo berrikusi behar direla, edozein jardueraren balantzea egitean gertatzen den bezala. Dena den, ondorioztatu ahal dugu, oro har, aztertutako aldian emaitza onak lortu eta konpromisoen betetze-maila ona izan dela. Horri dagokionez, memoria honetan aipatzen diren jarduerak gauzatzeko ezinbestekoa izan da haiek sustatzeko azken hilabeteotan pertsona eta antolakuntza-unitate guztiek batera egin duten lana.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral